

UDALETAKO ARDURADUN POLITIKOENTZAKO GOMENDIOAK INDARKERIA MATXISTAKO KASUEN AURREAN

- Udalerrietan indarkeria matxistaren ondorioz sortzen diren eraso eta hilketen aurrean, jendaurreko jakinarazpen eta jarduerak egiteko politikarientzako aholkuak eta orientabideak jaso dira gidaliburuan.
- Bertan, besteak beste, hurrengo gaiak jorratu dira: hedabideen "eginkizun nagusia", biktimarekiko eta haren ingurunearekiko harremana edo elkarretaratzeak deitzeko asmoz emakumeen elkarrekin elkarlana.
- Euskadiko udaletako hogeita hamar bat hautetsik gaur Durangon jasoko dute gidaliburu honen edukiak gauzatzeko hasierako prestakuntza.

Bilbon, 2014ko apirilaren 10ean. Euskadiko udaletako hautetsiengana zuzenduta dago EUDELek prestatutako *"Indarkeria matxista ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak"* izenburupeko gidaliburua, Emakunderekin lankidetzan, Berdinsarera udalen sarearen esparruan.

Argitalpen honen bidez, udalen jendaurreko erantzuna erraztu eta hobetu nahi da, indarkeria matxistako eraso edo hilketa bat ematen denerako. Kasu hauek hedabideetara erraz heltzen dira, batik bat, interneten eta sare sozialen bitartez, gertatu direneko udaletan inpaktua eta alarma sorrazita. Iturri ofizial nagusi gisa, politikaria bereziki arazotsua den informazioa zabaltzeko eta bere mezuak ondo hautatzeko erronkaren eta erantzukizunaren aurrean dago, indarkeria matxistaren aurrean gaitzespenaren gizarte-kultura sortzeko.

Eginkizun horretan laguntzeko eta gidaliburua gauzatzeko asmoz, EUDELek gaur Durangon prestakuntzako tailerra antolatu du hiru lurralde historikoetako hogeita hamar bat alkate zein Berdintasuneko zinegotzirekin. Saioaren irekiera **Ibon Uribe** Galdakaoko Alkatearen esku egon da, EUDELeko Berdintasuneko ordezkari gisa. Tailerra dinamizatzeko **Norma Vázquez** egon da, indarkeria matxistaren alorreko aholkulari aditua.

Talde-dinamiketan arduradun politikoei elkarriketa eta prentsaurrekoetan komunikazio alorreko trebeziak (rol playinga) landu, benetako esperientzia eta kasuak aztertu eta herri-erakundearen adierazpenetarako ereduak prestatuko dituzte.

Politikarientzako gomendioak

- **Herri-erakundearen adierazpenak** prestatzea.
- **Emakumeen elkarteekin elkarretaratzeak** deitzeko prozedurak.
- **Biktimarekiko eta bere ingurunearekiko** harremana: intimitatea gordetzeko eskubidearen babesa, batez ere adingabea denean, atentzio eta babeserako baliabideak antolatzea, laguntza...
- **Hedabideekiko** harremana: mezuen eta erantzuteko denboraren hautaketa, kasuari buruzko datuak zabaltzea (gertakizunaren lekua, erasotzailearen soslaiak, etab.).

Gidaliburuan adierazita dagoenez, **herri-erakundearen komunikazioaren** planifikazioa eta ikuspegi zuzena edukitzea biktimen intimitatea babesteko hala nola zurrumurru eta faltsukeriei aurre egiteko gakoa da. Indartu beharreko beste alderdi bat **informazioaren profesionalakiko** lankidetzazko harremanari eta albistea jorratzeko aholkua eskaintzeari dagokie. Gidaliburuan hedabideen "zeregin nagusia" nabarmentzen du indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko mezuak zabaltzen laguntzeko, hura sufritzen ari diren emakumezkoek eta burutzen ari diren gizonezkoek entzuteko aukera izan dezaten.